

Paula Kasares

IRAKASLEA

Inkesta soziolinguistikoaren zenbaki gorriak

Intuizioak zenbaki bihurtzen direlarik benetan larritzeko arrazoia dugu. Berriki, larritzeko arrazoia harrapatu dut Nafarroan aurkeztu den azken inkesta soziolinguistikoa aztertuta: *Euskararen egoera Nafarroan 2008*. Nire asmoa inkesta berria 2003an Nafarroako Gobernuak berak eskatutako inkestaren aldean aztertzea zen, biak konparatu eta 2003tik 2008 bitartean Nafarroako egoera soziolinguistikoan agertzen diren joerak atzeman.

Baina hasi eta berehala konturatu naiz 2008ko inkestak balio konparatibo handirik ez duela 2003ko inkestarekiko. Zaila da bi inkestaren artean alderaketa sistematikoa egitea biek galdetegi desberdina izan baitute oinarri. Gainera, 2008ko inkestak ez dio inolako erreferentziarik egin aurrekoari, lehenago Nafarroako egoera soziolinguistikoa behin ere ikertua izan ez bailitzan. Deus ez du erran egoeraren aldaketaren gainean, joeren gainean, euskararen biziberritzea agertzen duten datuez edo egoeraren egonkortasuna salatzen dutenez. Nahita ez zaio eman inkestari inolako erreferentzia diakronikorik? Nahita agertu da euskararen egoera argazki bat bezala, eta ez dinamikoa den prozesu baten une gisa? Ni baiezkotan nago.

Bertzalde, inkestak galdemodu zentzugaberen bat ere badu, euskal hizkuntza komu-



JOSU SANTESTEBAN

nitatearen errealitatea ez ezagutzetik soilik planteatzen ahal dena. Adibidez, Nafarroatik kanpo jaioetako hizkuntza-profila eta erabilera aztertu ditu, bereizi gabe kanpotar hori Tolosakoa edo Quitokoa den.

Dena dela, zenbait datu alderagarri kausitu dugu bost urteren buruan euskararen egoera Nafarroan nola aldatu den ikusteko: 2003tik 2008 bitartean, 15 urtetik gorako nafarren artean euskaraz ongi hitz egiten dutenak %10,5 izatetik %11,9 izatera pasatu dira. 15 eta 24 urte tarteko gazteak hartzen baditugu, ia %20 dira egun euskaraz ongi egiten dutenak. Baikor izateko modukoa dirudi.

Baina, 15 eta 24 urteko gazteen hizkuntza gaitasuna eremuka aztertzen badugu ikus dezakegu 2003an eremu euskalduneko gazteen %86,4k ongi egiten zuela euskaraz eta 2008an, aldiz, %78,3k baino ez. Hau da, bost urtetan 8,1 puntu galdu du eremu euskalduneko gazteen euskararen gaitasunak. Bertze modu batez erratealegoke, Nafarroako eremu euskalduneko 15 eta 24 urteko gazteak bost urtetan 8,1 puntutan erdaldunago dira. Eremu mistoan ere adin tarte horretako gazteen hizkuntza gaitasunak 0,5 egin du behera.

Niri bederen, inkesta horrek intuizio bat zenbaki bihurtu dit, zenbaki gorria. ■



2008ko inkestak ez dio
inolako erreferentziarik egin
aurrekoari, lehenago Nafarroako
egoera soziolinguistikoa behin
ere ikertua izan ez bailitzan



TXANDAN

Amatiño



Politikariei leporatzen zaizkien ajeetakoa agintarien eta herritarren arteko gertutasunik eza da. Baina, esanak esan, gertutasunik eza ezezik gehiegizko hurbiltasuna da egungo akatsik nabarmenena.

Interes partikularren defentsan sortutako taldetan banatua dago gizartea, “arazo bakar bateko elkartetan” zatikatua alegia: energiaz, errausetaz, garraioaz, kontsumitzaile-eskubideez edo senar dibortziatuaren eskakizunez. Denak zilegi, noski, baina onura orokorrari muzin eginez interes partikularrak defenditzeko arriskua dutenak.

Gehiegizko hurbiltasuna

Onura orokorra ez da interes partikularren metaketa, sintesi demo-

kratikoa baino. Interes orokorra ez da telebista-solasaldietan edo anti-plataformetan biltzen, hiritar guztien partaidetzan, erabaki informatuen kalitatean, ebazpenen gardentasunean eta etorkizunera begira erantzukizuna bermatzeko sisteman baizik. Daniel Innerarity filosofoak esan bezala: “Politikoeak gaizki egiten dute, beraiek baino hobeto beste inork ezin duena egin”.

Eta gaizki egiten dute erabaki antipopularrik hartzeko ez lidergorik, ez ausardiarik eta ez erantzukizunik ez dutenean. ■